Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**IBONE BENGOETXEA OTAOLEAK, HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK**

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeita seian** egindako bileran, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 63 gaia**.

**"63.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA "BIZKAIKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO II. PLAN INTEGRALA 2005-2016" DELAKOAREN 2020KO ABENDUAREN 31RA ARTE LUZAPENA ONARTZEN DUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEKO.**

**Lehenengoa**.- **BIZKAIKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2005-2016 II. PLAN INTEGRALA** 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea onesten duen foru arauaren aurreproiektua idazteko prozeduraren hasiera erabakitzea, akta honi erantsitako 73. eranskineko testuaren arabera.

**Bigarrena**.- Erabaki hau Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuari eta Ingurumen Zerbitzuari jakinaraztea."

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onartu ohartarazita, honakoa egin da, Bilbon, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeita zazpian.

**IBONE BENGOETXEA OTAOLEA, DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en reunión celebrada el día **veintiséis de diciembre de dos mil diecisiete**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 63 del Orden del Día.**

**"63º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA INCOACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL POR LA QUE SE APRUEBA LA PRÓRROGA DEL II PLAN INTEGRAL DE GESTIÓN DE RESIDUOS URBANOS DE BIZKAIA 2005-2016, HASTA EL 31 DE DICIEMBRE DE 2020.**

**Primero**.- Acordar la incoación del procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueba la prórroga del **II PLAN INTEGRAL DE GESTIÓN DE RESIDUOS URBANOS DE BIZKAIA 2005-2016**, hasta el 31 de diciembre de 2020, cuyo texto para constancia, se une al Acta de la presente reunión como Anexo nº 73.

**Segundo**.- Comunicar el presente acuerdo a los Servicios de Servicios Generales y de Gestión Ambiental del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural."

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, se expide la presente, en Bilbao, a veintisiete de diciembre de dos mil diecisiete.

alderaturik eta ados / cotejado y conforme
idazkaritza orokorreko unitateko buruा
el/la jefe/a de la unidad de secretaría general

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
Idazkaritza orokorra / secretaría general

BFAren bilera aktaren eranskina
Anexo al acta de la reunión

zk./nº 73

26-12-2017

Gai zk. / Nº Asunto 63

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

Bizkaia
iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila
departamento de sostenibilidad y medio natural

**FORU ARAU PROIEKTU AURREKOA, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 II.Plan Integrala 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea onesten duena**

**ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL por la que se aprueba la Prórroga del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia. 2005-2016, hasta el 31 de diciembre de 2020.**

ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005eko abenduaren 16ko osoko bilkuran, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integrala onetsi zuten, 10/2005 Foru Arauaren bidez.

Nazioarteko gidalerroei jarraituz, Bizkaiko Foru Aldundiaren hiri-hondakinen arloko politikaren helburua da herritarrei kalitateko zerbitzu bat ematea, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan ahalik eta homogenoena eta doituena den kostu batekin eta ingurumen arloko babes-maila handienekin, betiere indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen betebeharrak eta garapen iraunkorraren printzipioak bete ahal izateko.

Bizkaiko Foru Aldundiak hiri-hondakinen kudeaketan iraunkortasuna sustatzearen aldeko jarrera du, hau da, hondakin horietako baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzearen alde dago, Europar Batasunak hondakinen kudeaketarako ezarri duen aukeren hierarkiarekin bat etorriz. Hierarkia horren arabera, lehenengo eta behin, prebentzioko jarduerei ekin behar zaie, birziklapen eta balorazioko ekintzekin batera, eta, azkenik, gainerako hondakinak —arriskugarritasuna murriztu eta gero— modu seguruan desagerrarazteko lanei.

BHHKPIren «22. Planaren jarraipena, kontrola eta berrikusketa» atalean adierazten denez, planaren hiru berrikuspen egin dira.

2017ko urriaren 9an, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru-diputatuak Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integralaren hirugarren berrikuspenaren berri eman zuen Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordean.

Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integralaren hirugarren berrikuspenetik atera diren ondorioen artean, adierazi behar da Espainiako estatuak eta EAEk eremu honetan ezarri dituzten helburuetako gehienak bete dituela Bizkaiak.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las Juntas Generales de Bizkaia en Sesión Plenaria de fecha 16 de diciembre de 2005, aprobaron mediante la Norma Foral 10/2005, el II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016.

Siguiendo las directrices internacionales, la política de la Diputación Foral de Bizkaia en relación a los residuos urbanos persigue proporcionar a la ciudadanía un servicio de calidad, con un coste lo más homogéneo y ajustado posible en todo el Territorio Histórico y con los máximos niveles de protección medioambiental, que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios del desarrollo sostenible.

La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una gestión de los residuos urbanos orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos de acuerdo con la Jerarquía Comunitaria de opciones de gestión de los residuos, según la cual se deben desarrollar prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización y, finalmente, operaciones de eliminación segura para la fracción restante de residuos, una vez reducida su peligrosidad.

Tal como indica el apartado 22 del PIGRUB "Seguimiento, control y revisión del Plan" se han llevado a cabo tres revisiones ordinarias del Plan.

El día 9 de octubre de 2017 la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural dió cuenta en la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia de los resultados de la 3ª revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016 (PIGRUB).

Entre las conclusiones de la tercera revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016, se desprende que Bizkaia ha cumplido la mayoria de los objetivos marcados por el Estado y la CAV en esta materia.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Ez da bete hondakin gordinik —aurretiko tratamendurik gabeko hondakinik— batere zabortegira ez isurtzearen helburua, eta partez bete dira aparatu elektriko eta elektronikoen gaikako bilketari lotutakoak eta beirazko ontzien, paper-kartoiaren, metalen, plastikoen eta egurraren birziklatze-indizeei lotutakoak.

No se ha cumplido el vertido crudo cero –vertido de residuos sin un tratamiento previo– a vertedero y se han cumplido parcialmente los referidos a la recogida selectiva de los aparatos eléctricos y electrónicos y a los indices de reciclaje de envases de vidrio, papel-cartón, metales, plásticos y madera.

Zehazki, Bizkaian, 527 kilo hiri-hondakin sortu dira biztanleko eta urteko, hau da, 2001. urtean sortutako kilo-kopuru bera; beraz, Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) xedatutakoa bete da. Estrategia horrek 2020. urterako ezarri zuen zabortegira isuritako hondakinen kopuruak % 30ekoa izan behar zuela gehienez. Gure lurraldean ehuneko hori % 19,1 izan da, 2016. urtean.

En concreto, Bizkaia ha generado 527 kilos de residuo urbano por habitante y año, los mismos que los generados en el año 2001, tal y como se dispone en la Estrategia Ambiental de Desarrollo Sostenible 2002-2020. En esta misma estrategia se establecía la reducción del porcentaje de residuos que se depositan en vertedero hasta el 30% en 2020, cuando en nuestro territorio ese porcentaje es del 19,1% en el año 2016.

Bizkaiak orobat bete ditu Estatuak pila, bateria eta metagailuen hondakinei dagokienez ezarri zituen indizeak. Zehazki, 2020. urterako, % 50eko birziklatze-tasa ezarri zuen, eta Bizkaian, dagoeneko, halako hondakinen % 80,6 birziklatu da, 2016. urtean.

Bizkaia también ha cumplido los indices de recogida selectiva establecidos por el Estado en relación a los residuos de pilas, baterías y acumuladores, que establecía una tasa de reciclaje del 50% para el año 2020 y que en Bizkaia supone ya en 2016 un 80,6%.

Era berean, betetako helburutzat jo behar da abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak (hondakinak hondakindegietan uzteari buruzkoa) hondakin biodegradagarriei dagokienez xedatutakoa. Hain zuzen, 1995ean hondakindegietan uzten ziren hondakin biodegradagarrien kopurua 2016. urterakoa % 25era murrizteko helburua ezarri zuen errege-dekretu horrek. Bizkaian, azken murrizketa hori 130.768 tona hondakin biodegradagarritan ezarri zen. Kopuru hori iaz zabortegian isuri ziren hondakinon benetako zifraren (45.625 tona) oso gainetik dago.

Se ha cumplido también el Real Decreto 1481/2001 de 27 de diciembre por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero referido a los residuos biodegradables, que fijaba el objetivo de reducir el depósito en vertedero al 25% de los valores de 1995 para el año 2016. En Bizkaia, esa última reducción se marcaba en 130.768 toneladas de residuo biodegradable, muy por encima de la cifra real depositada en vertedero el año pasado, que fue de 45.625 toneladas.

Halaber, ontzi eta bilgarrien hondakinen balorizazio-tasa gainditu dugu. Beirazko ontzien, paper-kartoiaren, metalen, plastikoen eta egurraren pisu guztiaren % 60ko tasa ezarri zuen Estatuak, eta, Bizkaian, ontzi eta bilgarrien hondakinen % 72,8ko balorizazioa lortu dugu.

También se ha logrado superar la tasa de valorización de los residuos de envases y embalajes establecida por el Estado en un 60% del total en peso de los envases de vidrio, papel-cartón, metálicos, plásticos y madera. (en Bizkaia se valoriza el 72,8% de los residuos de envases y embalajes).

Bizkaiak partez bete ditu Estatuaren araudiak ezartzen dituen beste helburu batzuk. Esaterako, ez da osorik bete aparatu elektriko eta elektronikoen gaikako bilketaren indizea (4,6 kilo urteko eta biztanleko), baina hurbil gaude, 3,36 kilo biltzen baitira urteko eta biztanleko, eta ez da heldu % 60ko birziklatze-tasara beirazko ontzien eta paper-kartoiaren kasuan (haien tasa % 59 eta % 54 izan dira, hurrenez hurren). Baina, metalezko ontzien, plastikoen eta egurraren birziklatze-tasak gainditu egin dira ezarritako helburuak.

Bizkaia ha cumplido parcialmente otros objetivos marcados por la normativa estatal: no se ha llegado a cumplir el indice de recogida selectiva de aparatos eléctricos y electrónicos hasta 4,6 kilos/hab/año, pero se está cerca de ello, ya que son 3,36 los kilos por habitante y año que se recogen de forma selectiva así mismo, no se ha llegado al 60% de tasa de reciclaje en las fracciones de envases de vidrio y papel-cartón, que se han quedado en el 59% y el 54%. Sin embargo, el indice de reciclaje de los envases metálicos, plásticos y de madera ha superado los objetivos marcados.

Bestalde, ez da bete BHHKPIn bertan zein Eusko Jaurlaritzaren 2007-2010 Ingurumen Esparru Programan ezarritako helburu bat, hondakin gordinik batere zabortegira ez isurtzea, alegia. Zabortegiaren erabilera murriztuz joan da 2004. urtetik: orduan sortutako hondakinen % 53,8 isurtzen zen zabortegira; 2016. urtean, berriz, % 19,1 besterik ez. Hala ere, oraindik ere badago zer hobetu, helburu hau bete ahal izateko.

Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren berrikuspenaren funtsezko alderdietako bat da agiri horretan jasotzen diren helburuak bete diren aztertzea. Ildo horretan, nabarmendu beharrekoa da prebentzioari eta berrerabilpenerako prestatze-lanari esker hauek lortu direla: pertsonako eta eguneko sortutako hondakin-kopurua 1,13 kilo izatea, (2016an sortu zen kopuru bera); merkataritzako hondakinak ez izatea 220.000 tonatik gorakoak (iaz, 130.018 tona izan ziren) eta hiri-hondakinek 697.000 tona ez gainditzea (2016an, 605.232 tona sortu ziren).

Hiri-hondakinen birziklatzeari lotutako helburua ere bete da: BHHKPIn % 40ko tasa ezarri zen, eta iaz hondakinen % 43,78 birziklatu zen. Ez da heldu, baina, konpostajerako ezarritako % 4ko tasara; % 1,1ean geratu baita. Beraz, hasiera batean jarritako ehuneko horretara gutxienez iristeko, neurri berriak hartuko dira, eta jarduketa osagarriak abiaraziko.

Esan bezala, ezin izan da lortu hondakin gordinik batere zabortegira ez isurtzearen helburua. Baina amaitu egin da lurraldearen beharrizanei erantzuteko ezinbestekoak diren azpiegiturak, hiri-hondakinak kudeatzeko direnak, Bizkaia osoan ezartzeko prozesua.

Egindako azterketatik ondorioztatu dugu Bizkaiko hondakin-kudeaketarako politika bat datorrela Europako gidalerroekin. Eta kontuan hartuta ekonomia zirkularraren paketearen aldaketa batzuk aurrez ikusita daudela hondakin, zabortegi, ontzi, ibilgailu, pila eta metagailuen eta aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen esparru-direktibetan, egokiena dirudi BHHKPIren indarraldia 2020. urtera arte luzatzea; gainera, urte horretan amaitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Planaren indarraldia.

No se ha cumplido el objetivo de vertido crudo cero, establecido tanto en el propio PIGRUB como en el Programa Marco Ambiental 2007-2010 del Gobierno Vasco. A pesar de que la utilización del vertedero se ha ido reduciendo progresivamente desde el año 2004 –cuando se destinaba el 53,8% de los residuos generados– hasta quedarse en el 19,1% en 2016, este objetivo tiene un margen importante de mejora.

Uno de los aspectos fundamentales de la revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos es el análisis del cumplimiento de los objetivos recogidos en este documento. En ese sentido, cabe destacar que en materia de prevención y preparación para reutilización se ha conseguido que la generación per cápita se mantuviera en 1,13 kilos por habitante y día (la misma cantidad que se generó en 2016), que los residuos comerciales no superaran las 220.000 toneladas (el año pasado se generaron 130.018 toneladas) y que la generación de residuos urbanos no superara las 697.000 toneladas (se han generado 605.232 toneladas en el año 2016).

También se ha superado el objetivo de reciclaje de residuos urbanos, fijado en el PIGRUB en una tasa del 40%, y que ha sido del 43,78% el pasado año. No se ha llegado a la tasa del 4% en compostaje, que se sitúa en el 1,1%, de manera que se dispondrán nuevas medidas y actuaciones complementarias para tratar de alcanzar, al menos, ese porcentaje marcado inicialmente.

Como se ha señalado, el objetivo de vertido crudo cero no ha podido alcanzarse. Sin embargo, sí se ha culminado el proceso para dotar a Bizkaia de las infraestructuras de gestión de residuos urbanos operativas indispensables para dar respuesta a las necesidades de nuestro territorio.

Del análisis realizado se extrae que la política de gestión de residuos en Bizkaia se encuentra alineada con las directrices europeas. Y, dado que se prevén modificaciones dentro del paquete de Economía Circular en las directivas marco de residuos, vertederos, envases, vehículos, pilas y acumuladores, y residuos de aparatos eléctricos y electrónicos, parece lo más adecuado prorrogar la vigencia del II PIGRUB hasta el año 2020, fecha en la cual tambien culmina el Plan de Prevención y Gestión de Residuos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Luzapenaren bidez, aldaketa horiek 2030. urtera arte ezarriko dituzten erronken araberako plangintza bat egin nahi da, eta, bereziki, erronka hauei heldu nahi zaie: hondakinen sorreraren prebentzioa; hiri-hondakinen berrerabilpena eta birziklapena bultzatzea; etxeko eta merkataritzako hondakin guztien pisuaren % 50 berrerabilpen eta birziklapenerako prestatzeko izatea lortzea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearekin bat; zabortegietara hiri-hondakin gordinik edo lehen mailakorik batere ez isurtzea lortzea, eta hiri- eta merkataritza-hondakinen materia biodegradagarriaren gaikako bilketa sustatzea.

El objetivo de esta prórroga es el de poder realizar una planificación acorde a los retos que marcarán hasta el año 2030 esas modificaciones y en todo caso, prevenir la generación, impulsar la reutilización y el reciclaje de las fracciones de los residuos urbanos, conseguir el 50% en peso de los residuos domésticos y comerciales destinados a la preparación para la reutilización y el reciclaje de acuerdo con la Ley 22/2011 de 8 de julio, de residuos y suelos contaminados, alcanzar el vertido cero de los residuos primarios o crudos procedentes de los residuos urbanos e impulsar la recogida selectiva de la materia orgánica biodegradable, procedente de los residuos domésticos y comerciales.

Bestalde, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 74. artikuluak hiri-hondakinen arloan xedatzen duenarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiari hauek dagozkio:

a) Hiri-hondakin solidoen esparru-plangintza garatzea, foru-planen bidez.

b) Udal jarduketak koordinatzea, arlo honetako zerbitzuen prestazio integrala bermatzeko.

c) Hondakinak kudeatzeko udalez gaindiko azpiegiturak bultzatzea.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 74 de la Ley 3/1998, General de Protección del Pais Vasco, en materia de residuos urbanos corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia:

a) El desarrollo de la planificación marco de gestión de residuos sólidos urbanos a través de los correspondientes planes forales.

b) La coordinación de las actuaciones municipales en orden a garantizar la prestación integral de servicios en esta materia.

c) El impulso de infraestructuras supramunicipales de gestión de residuos.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseiluaren urriaren 30eko bileran, aldeko txostena eman zitzaion BIZKAIKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2005-2016 PLAN INTEGRALA 2020KO ABENDUAREN 31RA ARTE LUZATZEARI.

En reunión del Consejo para la Sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia celebrada el día 30 de octubre, se informa favorablemente la Prórroga del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia. 2005-2016, Hasta el 31 de diciembre de 2020.

Azkenik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 7.2a) artikuluaren arabera, Batzar Nagusiek lurralde osoari eragiten dioten plan sektorialak onesteko eskumena dute.

La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia prevé en su artículo 7.2 apartado a) la competencia de las Juntas Generales para la aprobación de los Planes Sectoriales que afecten a todo el territorio.

XEDAPEN OROKORRA

Bakarra. *Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 II. Plan Integrala luzapena.*

Foru Dekretu honek Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 II. Plan Integrala 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzen du.

DISPOSICIÓN GENERAL

Única. *Prorroga del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia.*

Se aprueba la prórroga del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016, hasta el 31 de diciembre de 2020.

BFAren bilera aktaren eranskina
Anexo al acta de la reunión

zk./nº 73
26-12-2017
Gai zk. / Nº Asunto 63

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

Azken xedapenetako lehena: *Araudi garapenerako baimena*

Disposición Final Primera: *Habilitación para el desarrollo Reglamentario.*

Baimena eman zaio Bizkaiko Foru Aldundiari foru-arau hau garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea*

Disposición Final Segunda. *Entrada en Vigor.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru arau hau.

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.